

ANDOAIN LABURREAN bideo lehiaketak aurten bere hamargarren edizioa ospatuko du

- Ez-profesionalei zuzendutako lehiaketa da, euskarazko bideo laburra entregatzeko azken eguna maiatzaren 19a izango da.
- Gaia librea izango da, baina LEIHO BAT azaldu behar du, izan zeharka, izan istorioaren elementu garrantzitsu gisa.
- Lehen saria 500 €koa izango da, bigarren saria 300 €koa, eta “ikuslearen saria” 150€. Herritarrek www.andoaindarraeuskaraz.eus web orrialdearen bidez bozkatzeko aukera izango du.

Andoaingo Udalak Zine eta Bideo Eskolarekin (ESCIVI) batera antolatzen duen lehiaketa honek, hamar urte betetzen ditu 2025eko edizio honetan. Urte hauetan guztietan zehar argi geratu da aurkezturiko lanen mailan emandako hobekuntza eta gazteen parte hartzeko interesa. Ainhoa Aiertzak, ESCIVIko ordezkariak, eta Marta Lasak, euskara zinegotziak, agerraldia egin dute lehiaketaren inguruko xehetasunak emateko.

Urtero antolatzen den lehiaketa honek, ikus-entzunezko munduan mugitzen diren zaleen artean interesa piztea du helburua, batez ere arlo honetako profesionalak izan nahi duten eta horretarako formazioa jasotzen ari diren gazteei aukera eman nahi diegu beren lanak pantailaratzeko eta publiko egiteko. Era berean, ekimen honen bidez euskarazko ikus-entzunezkoen panorama elikatzeko ahalegina egiten dugu. Izan ere, oinarrietan agertzen den moduan bideo laburrean hizkuntza eduki guztiak euskaraz izan beharko dira.

Aurten edozein adineko pertsona ez-profesionalek hartu ahal izango dute parte, eta bideo laburra osatzerakoan gai librea izango dute baina LEIHO BAT azaldu beharko da ikus-entzunezkoan.

Lanak lehiaketa honetarako bereziki sortuak izan behar dute. Aurkezten diren bideoek 2024ko otsailaren 1etik 2025eko maiatzaren 19ra bitartean errodatuak behar dute izan, originalak, eta argitaratu gabeak. Ez da onartuko aurrez beste lehiaketaren batean aurkeztutako lanik.

9. ANDOAIN LABURREAN edizioko lehenengo saria 500 eurokoa izango da, eta bigarren saria 300 eurokoa. Bestalde, aurreko ediziootan bezala, “ikuslearen saria” deiturikoa ere izango da. Ikusleek www.andoaindarraeuskaraz.eus webgunean bozkatu ahal izango dute bere bideo laburrik gogokoena, maiatzaren 23tik 31ra, eta boto gehien jasotzen duen bideoaren egileak 150€ jasoko ditu.

Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 19a da. Lanak aurkezteko datu pertsonalekin bete <https://labur.eus/andoainlaburrean> estekan dagoen formularioan, eta, jarraian, My Air Bridge (www.myairbridge.com) bidez bidali bideoak euskarazerbitzua@andoain.eus postara, .mov edo .mp4 formatuetan. Sari banaketa 2025eko ekainaren 4an izango da Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan, arratsaldeko 19:00tan.

Informazio gehiago www.andoaindarraeuskaraz.eus/euskaraz-bizi/andoain-laburrean webgunean.

Andoain, 2025eko martxoaren 21a.